

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5152

EBAZPENA, 2024ko irailaren 10ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, irailaren 19ko 134/2023 Dekretuan ezarritako esparruaren barruan araututako dirulaguntzetarako deialdia argitara eman duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko azaroaren 7an emandako Aginduaren babespean eskatutako dirulaguntzak ematea onartu duena, 2024ko ekitaldirako. Izan ere, dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak («Elkarteak 2023» Programa) ematea arautu da (2023ko azaroaren 16ko EHAA, 219 zk.).

Ikusi da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko azaroaren 7an emandako Aginduaren babespean aurkeztutako laguntza eskabideak (ebazpen honen eranskinetako zerrendan jasota) eta horiekin batera aurkeztutako agiriak. Kontuan izanik Balioespen Batzordeak egindako ebazpen-proposamena, irailaren 19ko 134/2023 zehaztutakoaren arabera aurkeztutako eskabideen azterketa eta ebaluazioaren arduraduna denez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako eranskinetako zerrendan azaltzen diren eskatzaileei irailaren 19ko 134/2023 Dekretuan jasotako dirulaguntzak ematea. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak arautu zituen («Elkarteak» programa). Horrela, elikadura sektoreak 99.980,74 euroko kopurua jasoko du ekitaldi honetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko da.

Bigarrena.– Aurreko ebazpen atalean finkatutako zenbatekoa 2023ko azaroaren 7ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritako moduan ordainduko da:

– Dirulaguntzaren xede diren gastu guztiak behar bezala justifikatu ondoren ordainduko da. Laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta onartu ondoren, dirulaguntzaren % 50 eman ahal izango da idatzizko eskaera arrazoitua eginda.

– Gainerako zenbatekoa dirulaguntzaren xede diren 2023ko gastu guztiak behar bezala justifikatu ondoren ordainduko da, eta 2024ko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da, gastuen egiaztagiriez gain (fakturak eta banku-egiaztagiriak), irailaren 19ko 134/2023 Dekretuaren III. eranskinarekin (gastuen justifikazio-inprimakia behar bezala beteta) batera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea amaitzen, interesdunak gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluek ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 10a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
IKER IGLESIAS EGUIA.

2024ko azaroaren 12a, asteartea

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO
DIRULAGUNTZAK

Programa-zk.	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	IFK/NAN	Laguntza jaso dezakeen gastua (eurotan)	Laguntza (eurotan)
1	00001- ASO2023-AG	Asoc. de Fabricantes de Conservas y Salazones de Pescados de Bizkaia	G48273080	30.300,00	7.653,78
2	00002- ASO2023-AG	Gremio de Pastelería de Bizkaia	G48087340	34.200,00	8.638,92
3	00003- ASO2023-AG	Asoc. Provincial de empresarios Carniceros Charcuteros de Bizkaia	G48167571	43.380,00	10.116,21
4	00004- ASO2023-AG	Asoc. de Empresas del sector Aserri del País Vasco	G20774782	13.400,00	3.384,84
5	00005- ASO2023-AG	Asoc. de Fabricantes de Embalaje Industrial del País Vasco	G95600813	5.970,00	1.275,79
6	00006- ASO2023-AG	Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa - KONFEKOOP	G01414028	35.770,00	9.035,50
7	00007- ASO2023-AG	Asoc. Prov. de Fabricantes y Expendedores de Pan de Bizkaia	G48112650	45.000,00	6.993,00
8	00008- ASO2023-AG	Asoc. De Carnicerías Selectas de Álava - ASELCAR	G01021922	22.119,36	3.868,68
9	00009- ASO2023-AG	Asoc. Empresarial de Servicios Comerciales de la Madera de Gipuzkoa	G20055307	25.331,99	4.430,57
10	00010- ASO2023-AG	Asoc. Patronal de Carpinteros e Industrias Similares de Gipuzkoa	G20386629	59.800,00	10.459,02
11	00011- ASO2023-AG	Gipuzkoako Artisau-Gozogileen Elkarte - GIARGO	G75203786	32.000,00	4.352,00
12	00012- ASO2023-AG	Asociación Artzai Gazta	G20826038	19.547,00	5.697,95
13	00013- ASO2023-AG	Ederto-Harakel Gipuzkoako Harategiak	G02765246	15.426,00	2.097,94
14	00014- ASO2023-AG	Asoc. de Pasteleros y Confiteros Artesanos de Álava	G01019454	8.255,00	1.603,95
15	00015- ASO2023-AG	Asociación de Carnicerías de Gipuzkoa	G20054441	5.483,00	958,98
16	00017- ASO2023-AG	Asoc. de Fabricantes de Piensos Compuestos Epea	G95285797	50.219,96	12.685,57
17	00018- ASO2023-AG	Asociación Guipuzcoana de Panaderías - AGIPAN	G20171161	11.513,00	2.236,98
18	00019- ASO2023-AG	Asoc. de Panaderías del Territorio Histórico de Álava - ASPANAR	G01349232	28.900,00	4.491,06